



*Mikel Laboa  
Benito Lertxundi  
Artze anaiak*

*EHUren Urrezko Dominadunak*



Mikel Laboa  
Manzisor  
Jaunaren  
Hitzaldia

Gure oroitzapenak  
itsas galeretako oholak bezala  
Ez dira  
Itxas hondoan ezabatzen  
Ez dute  
Inongo porturik helburu.

Gure oroitzapenak  
Itxas galeretako oholak bezala

Ur gainean doaz kulunka  
Uhainek eraginak  
Ezabatu ezin  
Eta xederik  
gabe.

Gure oroitzapenak  
Itxas galeretako oholak bezala

ERAMATEN NAUTE:

HAURTZARORA,

- Gardatara (Izpazter eta Lekeitio artean dagoen auzora),
- Gerra zibilera,
- Donostiako Alde Zaharrera,
- Gure familiarengana (gaur aita zenaren urtebetetzea izango zen)
- Santo Tomas egunera
- Eguberrietara
- Berastegi eta Pasai Donibanera

ERAMATEN NAUTE.

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ERAMATEN NAUTE

GAZTARORA,

- Marixol ezagutu nuen garaira (nik 16 urte nituen eta berak 12)
- Juan Jose Lasa koinatua ezagutu nuenekora,
- Gitarra ikasten hasi nintzenekora,
- Iruñan, medizina egiten ari nintzen denboretara,
- Eta publiko aurrean lehenengo aldiz abestu nuen hartara,
- Iñako Pagola ezagutu nuen garaira

ERAMATEN NAUTE.

ERAMATEN NAUTE

BARTZELONARA ERE,

- Setze Judges taldera,
- Jorge Oteiza ezagutu nuen garaira,
- Ez Dok Amairu taldera (Lourdes Iriondo, Benito Lertxundi, Joxean Artze, Jose Mari Zabala eta... izan ziren nere lehen kontaktuak)
- Ikimilikilikik ikuskaria Venezian eman genuen garaira,
- Usurbilko taldera (Jose Luis Zumeta, Joxean eta Jexux Artze)
- Agurtzane eta Iزارo jaio ziren egunetara

ERAMATEN NAUTE.

ERAMATEN NAUTE

BAZTANERA,

- Iparraldera (Ximun Haran eta Abeberryrengana)
- Munto Baserrira, Erremellurira, hainbat lekutara
- Eta baita ere gaurko egunera,
- Asteasuko koadrilarengana (Bernardo Atxaga, Jose Luis Agote, Agerre pelotaria, Tomas Uri... Obabara)
- Musiko gazteekin ditudan harremanetara (batipat Iñaki Salvador, Josetxo Silguero, Eduardorengana...)

ERAMATEN NAUTE.

Eta baitaere EKARTZEN NAUTE

URREZKO DOMINA HARTZERA,

- Urrezko dominak «Ez Dok Amairu» saritu nahi du eta geroztik egin dugun lana ere bai.
- Baina lan hau egiteko oso garrantzitsua izan da neretzat hainbat pertsonak eman didaten laguntza:
- BATETIK, BESTE ARTISTAK (hemengoak eta kanpokoak, oraingoak eta garai batekoak; artista plastikoak, literatura egiten dutenak eta musikariak)
- BESTETIK, TEKNIKARIAK.
- JARRAITZEKO, ANTOLATZAILEAK (Euskal Herrian urteetan zehar kultura zabaltzeagatik lan egin dutenak)
- Eta BUKATZEKO, PUBLIKOA,

DEN-DENEI eskertu nahi nieke emandako laguntza.

Sarrionandiaren poema batekin hasi naiz eta agur modura,

Xabier Leteren hitzak gogoratuz bukatu nahi nuke:

Izarren hautsa egun batean  
bilakatu zen bizigai,  
hauts hartatikan uste gabean  
noizpait ginaden gu ernai  
eta horrela bizitzen gera  
sortuz ta sortuz gure aukera  
atsedenik hartu gabe...

Agur eta mila esker.